

“GABONAK” HAUREN MARRAZKI-LEHIAKETA

ARCCO AMARA MERKATARITZA-GUNEA



1.- Antolakuntza

ARCCO BERRI SL sozietateak (IFK: B-75048603; helbidea: Irun plaza 6, 20011 Donostia) hauren marrazketa-lehiaketa antolatu du Gabonak direla eta.

2.- Teknika eta gaia

Marrazkiak egiteko teknika erabat librea da; edozein material erabil daiteke (arkatzak, akuarelak, argizari-arkatzak...), betiere DIN-A4 formatuan egiten bada.

Gaiak Gabonekin izan behar du zerikusia, baina zure irudimena eta sormena garatu behar dituzu. Kontaiezaguzu marrazki baten bidez!.

3. Aurkezpena, parte-hartzea

Marrazkia DIN-A4 formatuan aurkeztu beharko da.

Marrazkiaren atzealdean honako datu hauek adierazi behar dituzu: izen-abizenak, adina, helbidea eta harremanetarako telefono-zenbakia.

2 eta 14 urte bitarteko haur guztiek hartu ahal izango dute parte.

Parte hartzeko, marrazkiak, datu pertsonalekin batera (izena, adina eta telefono-zenbakia) honela aurkeztuko dira:

3.1. Utzi zure marrazkia, datuekin batera (izena, adina eta telefono-zenbakia) merkataritza-gunean jarriko dugun kutxatilan.

3.2. Bidali zure marrazkia eta datu pertsonalak (izena, adina eta telefono-zenbakia) honako helbide honetara: ccarccoamara@gmail.com.

3.3. Gure **sare sozialen bidez (Facebook eta Instagram)** ere parte har dezakezu, argitalpenetan zehaztuko diren oharrei jarraikiz.

Ezin izango dute parte hartu Arcco merkataritza-gunearekin lan- edo merkataritza-harremana duten pertsonak, ez eta beren jarduera merkataritza-gunean gauzatzen duten merkatariek eta langileek ere.

4. Epea eta erakusketa

Parte hartzeko epea 2022ko abenduaren 20tik 2023ko apirilaren 3ra bitartekoa izango da, biak barne.

Marrazki guztiak merkataritza-gunean jarriko dira ikusgai. Etorri ikustera!

5.- Balorazioa, saria eta jakinarazpena

Lanak baloratzean honako hauek hartuko dira aintzat: parte-hartzaileen adina, orijinaltasuna eta sormena, kolorearen konposizioa eta estetika.

Saria 60 euroko erosketa-txartela izango da eta merkataritza-guneko establezimenduetako edozeinetan trukatu ahal izango da.

Urtarrilaren 4an baloratuko ditugu aurkeztutako marrazkiak eta egun horretan bertan merkataritza-gunearen sare sozialen eta webgunearen bidez jakinaraziko dugu nor irabazi duen haurren marrazki-lehiaketa. Irabazleari telefono bidez ere jakinaraziko zaio zuzenean.

6.- Parte-hartzaile guztiek beren irudi-eskubideak baimentzen eta lagatzen dizkiote Arcco Berri SLri, aurkeztu diren marrazkiak sare sozialetan, publizitate-pantailan eta erakusketan bertan jartzeko. Horren xede bakarra da marrazkiak aitaren eguneko kanpainan jakinaraztea, hedatzea eta ikusgai jartzea. Saritutako marrazkia merkataritza-gunearen jabetzako izango da, eta argitaratzeko eskubidea izango du, betiere egilea zein den adierazita.

Gainera, enpresa horrek egilearen izen-abizenak, bizi den herrialdea eta hiria, eta irudia erabili ahal izango ditu barneko eta kanpoko komunikabideetan (sare sozialak, publizitate-pantailak, etab.) argitaratzeko. Helburu bakarra da sarituaren irudia hedatzea.

Lehiaketa honetan parte hartzeak ez du sortzen irudi-eskubiderik.

Arcco Berri SLk eskubidea izango du sustapen-ekintzaren baldintzak edozein unetan aldatzeko, bai eta bertan behera uzteko ere, betiere justifikatutako arrazoiak badaude.

7.- Arcco Berri SL da datuen arduraduna, eta datu-base batean gordeko ditu, indarrean dagoen legeriak eskatutako segurtasun- eta konfidentzialtasun-neurriekin, lehiaketa hau kudeatzeko. Parte-hartzaileek eskubidea izango dute eurei dagokien informazioa atzitzeko, zuzentzeko, ezerezteko, aurka egiteko, ahazteko eta eramateko, eta datu-basean parte hartzeko baimena ematen dute. Eskubide horiek direccion@arccoamara.com helbide elektronikoan baliatu ahalko dituzte, eta eskaerarekin batera NANaren fotokopia igorri beharko dute. Jakinarazten dizuegu datuak borondatez ematen direla, eta berariazko baimena dela parte-hartzailearekiko harremana arautzen duen oinarri juridikoa. Baimen hori lortzearen helburua lehiaketa bera egitea izango da, eta datuak merkataritza-gunearen datu-baseetan gordeko dira Arcco Berri SLk etorkizunean antolatzen dituen ekitaldi, sustapen edo jarduera berriak jakinarazteko.

8.- Sustapen-ekintza honetan parte hartzeak oinarriok onartzea dakar. Lotura honetan egongo dira eskuragai oinarriak: www.arccoamara.com